

## Baratze Parke Sarearen FURGOBARATA zerbitzuak 2018

- ✓ **BARATZEKIDEEI ZUZENENKO AHOLKULARITZA**: Bisita egunetan, erabiltzaileen lursailak bisitatuko dira sortzen eta planteatzen diren zalantza eta arazoei konponbideak bertatik bertara proposatuaz.
- ✓ **BARATZEKIDE ETA HERRITARRENTZAKO TAILERRAK**: bisita batzuetan kide guztientzako edo/eta herritarrentzako interesgarriak diren tailer praktikoak landuko dira. Adi egon egutegira!
- ✓ **BARATZE PARKEAREN IKUSKARITZA ETA GOMENDIOAK**: Baratze Parkeko egoera egokia bermatzeko helburuarekin, baratze parkeen hileroko azterketa eta txostena egin eta bidaliko da Udal eta Elkarteari, eta dagokion kasuetan, identifikatutako arazo edo gabeziei konponbideak proposatuaz.
- ✓ **ELKARTEEN BILEREN DINAMIZAZIOA**: Elkarateak zarete Baratze Parkeak bizirik eta txukun mantentzen dituzuenak, baratzeak komunitarioan kudeatzen dituzuenak. Elkarteetako bileretan parte hartuko dugu, Elkarateek horrela nahi izanez gero.
- ✓ **LANDARE EKOLOGIKOAK** eta baratzetarako beste produktuak erosteko aukera izango da.
- ✓ **BARATZE PARKE SAREKO BERRIAK ETA PROPOSAMENAK**. Baratze Parke Sareko ekimen desberdinen berri emango du Furgobaratzak, hala nola, ikastaroak, festak, topaketak, etab. Baratze Parke Sareko buletinean harpidetzeko orriak eskura daude Furgobaratzan. Honez gain, erabiltzaileen eta Elkarteen proposamenak jasotzeko aukera emango du Furgobaratzak. Zuen beharretara egokitzeko ahalegina egingo dugu.
- ✓ **BARATZE PARKE BAKOITZERAKO LAN BEREZITUAK**: Baratze Parke batzuetan izan daitezkeen behar zehatzei erantzuteko aukera ere zabalduko da Furgobaratzaren bidez eta auzolana lagun, hala nola, erraminta etxolaren edo konposta gunearen egokitzapen lanak, fruitu gorrien baratzea egitea edo eta baratze-alorrak edo ubideak prestatzea.
- ✓ **ZERBITZU GEHIGARRIEN KONTRATAZIOA**: Baratzekideek eta Elkarateek aukera izango duzue zerbitzu gehigarrien eskaera egiteko, horretarako prestatuko den inprimakia beteaz. Eskatutako zerbitzu gehigarri hauek eskaera egiten duzuen baratzekideen artean ordainduko dituzue. Zerbitzu hauen artean, ondorengoak aurreikusten ditugu: Lursailaren prestaketa lanak; hondakin begetalen birrintze zerbitzua edo inguruko landaretzaren garbiketa.